

DIRU SARRERAK

Bezeroak, gure produktua eskuratu nahiko balute asko ordaintzeko prest egon beharko lirateke, zehazki, 850.000€. Hasteko, gizarteko arazo larri bat konpontzen duelako, jendea basura botatzera joaten denean ez du birziklatzen eta gauzak nahi duen lekura botatzen dituzte, ekintza horiek hainbat ondorio kaltegarri sortzen ditu; Naturaren kutsadura, kutsadura atmosferikoa, energia kontsumoa handitzea... Gure produktuarekin arazo hauek ekidingo ditu, bestalde, eskaintza murriztua denez, prezio handia ezarriko dugu.

Hasiera batean adibide gisa 4 zaborrontzi jarriko ditugu Donostiako auzoetan zehar eta aurrerago gehiago jartzen joango gara.

Ordainketa egiterakoan modu asko egin ditzake bezeroak, adibidez, plazotan (bi, hiru edo lau) egin dezake kantitate asko delako eta atseginagoa izan zezatelako. Bestetik, dena batera ordaintzeko aukera ere badago, gu prest egongo ginateke ordainketa batean diru guztia jasotzea.

Ordainketa egiterakoan, transferentzia bidez egitea eskertuko genuke, ez litzaiguke gustatuko esku dirutan jasotzea dirua.

Prezioari dagokionez, prezio dinamiko bat ezarriko dugu, hasieran prezio bat finkatuko dugu eta ondoren prezioa aldatzen joango da eskaintza eta eskariaren arabera. Adibidez, ikusiko bagenu gure produktuak arrakasta duela eta gehiago egin beharko direla, saltzerakoan prezioa handituko genuke.

Gure diru-sarrerak handitzeko hainbat modu dauzkagu; Lehenik eta behin, gure diru sarrerak handituko ditugu aktiboen salmentarekin, gure kasuan, zaborrontziak saltzen lortuko dugu gure diru sarrerak handitzea. Bestetik, beste modu bat diru sarrerak handitzeko, publizitatea jarriko dugu zaborrontzietan, bezeroak nahi duen publizitatea jarriko dugu, gehienetan beraien logoa izaten da. Halaber,, lehiaketetan parte hartuko dugu, kasu honetan, enpresa berritzaileko lehiaketan hartuko dugu parte, eta irabaziko bagenu dirua emango ligukete gure enpresa martxan jartzeko.

Gobernuak diru laguntza emateko prest egongo litzake, gure produktuarekin gizarteko arazo bat konponduko duelako eta etorkizun bateko arazo bat ari delako saihesten.

Azkenik, gure enpresa akzioetan banatuta egongo da eta inbertsore berriak edukiko genituzke.